

UNIBASQ EUSKAL UNIBERTSITATE SISTEMAREN KALITATE AGENTZIAREN AHOLKU BATZORDEAREN OHIKO BILERAREN AKTA.

2015eko otsailaren 6ko 10:30ean, Eusko Jaurlaritzaren Bilboko Lurralde Ordezkaritzan, Unibasq Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziaren Aholku Batzordea bildu da, honako kide hauek bertaratu direla:

Batzordekideak: Agentziaren zuzendari Juan Andrés Legarreta jauna, Estibaliz Amorrortu andrea, Aintzane Asumendi andrea, Gemma Espigares andrea, Alfonso Hernández jauna, Félix Pérez jauna, Cesar Arrese-Igor jauna eta Jörn Grunewald jauna.

Ezin etorria adierazi dute: Jean-Michel Uhaldeborde jauna, Aurelie Arcocha andrea eta Eneritz Garro andrea.

Unibasq-en aldetik José Manuel Valle (zuzendari-laguntzailea) eta Eva Fdz. de Labastida (ebaluazio-arduraduna) bertaratu dira.

Gai-zerrenda

- 1.- 2014ko abenduaren 12ko aurreko bilkuraren akta irakurri eta, hala badagokio, onartzea.
- 2.- Zuzendariaren txostena.
- 3.- 2014ko irakasleak egiaztatzeko prozesuen emaitzen azterketa.
- 4.- Beste ebaluazio eta txosten batzuetarako batzordea.
- 5.- Ikasleen aholku-batzordea.
- 6.- ENQAren gomendioen azterketa.
- 7.- Galde-eskeak.

Bilkura hasi aurretik, ongi-etorri ofiziala eman zaie batzordekide berriei.

1.- 2014ko abenduaren 12ko aurreko bilkuraren akta irakurri eta, hala badagokio, onartzea.

Aho batez onartu da akta.

2.- Zuzendariaren txostena.

2015/02/06ko Aholku Batzordearen 14. aktaren laburpena

Unibasq-en jarduerari buruzko hainbat gairen berri eman du zuzendariak:

- Errege Dekretua aldatzen dituen otsailaren 2ko 43/2015 Errege Dekretua argitaratzea.
- Aurreko gaiari dagokionez, jakinarazi da Aholku Batzordeak, etorkizunean, titulu ofizialak baimentzeko eta egiaztatzeko protokoloen egokitzapena onartu beharko duela.
- Hainbat bilera egin dira unibertsitateekin beren tituluen egiaztatpena berritzeko egutegia planifikatzeko 2015ean.
- Zuzendariak jakinarazi du gaur arratsaldeko Gobernu Kontseiluan Agentziaren zuzendari berria izendatuko dela seguru aski, eta zuzendari hori otsailaren amaieran hasiko dela lanean ofizialki.

3.- 2014ko irakasleak egiaztatzeko prozesuen emaitzen azterketa.

Agentziaren programa guztiak berrikusteko eta hobetzeko prozeduraren zati gisa, irakasle eta ikertzaileak egiaztatzeko 2014ko bi deialdietan bildutako dokumentazioa aurkeztu da programaren funtzionamenduari buruzko azterketa egin ahal izateko:

Lorturako emaitzak aztertzen dira eta programa hobetzeko proposamenak lortzen dira.

4.- Beste ebaluazio eta txosten batzuetarako batzordea.

Komenigarritzat jo da Batzorde bat sortzea orain arte beste batzorde batzuetan bilduta ez zeuden txostenak edo beste ebaluazio batzuk egiteko, esate baterako: UPV/EHUko Berezko Tituluen proposamenen ebaluazioa, hiru unibertsitateen eta Eusko Jaurlaritzaren arteko Kontratu-Programen betetze-mailaren ebaluazioa, Euskal Unibertsitate Sistemari buruzko txostenak eta azterlanak (prospektiba) egiteari buruzko ebaluazioa, eta abar. Era berean, diru-sarrera gehigarriak sortzen dituzten bestelako jarduerak egiteko ere balio izango luke.

Batzorde hori osatuko luketen kideen eta batzordearen izen ofizialaren proposamena hurrengo Aholku Batzordera eramango da.

5.- Ikasleen aholku-batzordea.

Batzordeak ikasleen aholku-batzordea sortzeko proiektuari buruzko iritzia eman dezala eskatu da. Euskal Unibertsitate Sistemaren 3 unibertsitateetako ordezkarien partaidetza aktiboa izango da eta Agentziaren hainbat organotako ikasle kide gehiago izango dira.

6.- ENQAren gomendioen azterketa.

Prestatutako laburpen-dokumentua aurkeztu du zuzendariak, eta adierazi du atal gehigarri bat erantsi litekeela taulan dagoeneko erdietsitako lorpenekin. Batzordearen ekarpenak eskatu ditu.

2015/02/06ko Aholku Batzordearen 14. aktaren laburpena

Lortu nahi dena da dokumentua agentziaren jarduerekin elkartzea Plan estrategikoan eta urteko kudeaketa-planetan.

Batzordeari egokia iruditzen zaio dokumentua, eta gogoeta egiteko bi aste inguruko epea igaro ondoren, beren ekarpenak bidaliko dituzte (Azken data: otsailaren 20a).

7.- Galde-eskeak.

Ez dago. Hurrengo bilera martxoaren 16an (astelehena) izatea proposatu da, 10:30ean.

Zuzendariak aukera hau aprobetxatu du batzordekideak agurtzeko eta izandako lankidetzaz estua eskertzeko. Batzordekideek eskerrak eman dizkiote zuzendariari egindako lanarengatik eta Batzordeak bere lana egin dezan eman dituen erraztasunengatik.

Aztartzeko beste gairik ez dagoenez gero, bilkura amaitutzat eman da 14:00etan.

Batzordeburuaren O.E.

Idazkaria

Juan Andrés Legarreta

Alfonso Hernández Frías